

Lehenik eta behin, eta hasi aurretik, gure eskerrik beroenak eskeini nahi dizkizuegu Gasteizko Harresiaren harira auziperatuak izan zareten guztiei, eta baita ere, nola ez, egun horretan parte hartu zenuten guztiei. Zuen babes, maitasun, konpromiso eta elkartasunak apur bat gozatu zituen guretzat hain gogorrak izan ziren momentu haiek.

Gaur, hemen, iazko maiatzean Audientzia Nazional Espainolak kondenatuak izan ginenon izenean hitz egitea egokitu zait, izan ere, iazko maiatzaren 17an, plaza honetan bertan, gurekin atxilotutako gazteetako batzuk epaituak izango dira. Kartzelara joateko mehatxua dute, baita isun ekonomiko izugarrien mehatxua ere.

Zoritxarrez guk badakigu zer den epaiketa baten aurrean egotea, baita horrelako zigor mehatxuak izatea ere, eta gainera gu babestearren daudenez eurek denak gaur egoera honetan, are arrazoi gehiagorekin, atzo eurek gurekin egin moduan, babestuko ditugu guk orain.

Gu gure militantzia politikoagatik izan ginen atxilotuak, torturatuak eta espetxeratuak. Militante politikoak ginen 2010eko urri hartan, eta militante politikoak izaten jarraitzen dugu egun madarikatu hartatik 6 urtera ere. Esan dezakegu, beraz, espainiar botereek ez zutela euren helburua lortu, baina bai sufrimendu izugarria sortu.

Gasteizko Harresian parte hartu zuten milaka herritarrek bazekiten gu militante politiko izate hutsagatik ginela kondenatuak, eta horregatik eskaini ziguten euren babesa. Orain auziperatuak diren gazteak ere euren artean ziren.

Eurek ere militante politikoak dira, justizia eta legearen aurrean erabakitzera behartu zituztenean justizia aukeratu eta, gurekin batera, gu inguratuz eta babestuz, eseri ziren plaza honetan legearen zein borren pisua euren gainean erori zitekeela jakitun.

Egun hartatik urte eta erdi inguru pasa denean gu zazpiok kalean gaude, eta ez batzuek nahi gintuzten ziega ilunetan. Baina argi esan nahi dugu espetxetik ez gintuela epaile batek atera, espetxetik hainbeste urtetan zehar lanean eta borrokan ibili diren eta zareten herritar guztiek atera gintuzuen.

Eta hemen gaudenez gero, eurek babestu gintuzten moduan, edo behar den moduan, babestuko ditugu haiek.

Aski da! Amaierarik ez duela ematen duen espiral makabro honekin amaitu beharra dugu. Ez dugu euskal herritar gehiago espetxeetan edo zigorturik nahi!

GU ZUEK GARA, ZUEK GU ZARETE!

MILA ESKER, BIHOTZEZ.

Ibon, Igarki eta Aiala

Lehenik eta behin eskerrik asko auzipetuon izenean gaur babesa adieraztera etorri zareten guztioi. Duela urte t'erdi plaza honetan ehunka lagunek herri harresia osatu genuen Aiala, Ibon, Igarki eta eurekin batera kondenatuak izan ziren Marina, Ainhoa, Bergoi eta Xabati gure elkartasuna eta babesa adierazi asmoz. Egun hartan aurreko harresietan ikasitako ikaspen bat argi islatu genuen: gu zuek gara, zuek gu zarete. Hala, gure gorputzak zuenak bilakatu genituen, une batez hamarnaka Aiala, Ibon eta Igarki irudikatu nahiko bagenu bezalaxe.

Gutako batzuek elkartasunetik konpromisorako jauzian pausu bat haratago ematea erabaki genuen auzipetuekiko babesa muturreraino eramanez (besteak beste batzuen kasuan kateak erabiliz, margoa burutik behera botaz beste batzuen kasuan). Geure lagunaren atxiloketa eragotzi baino egoeraren krudeltasuna adierazi nahi izan genuen eta desobedientziaren bidean urrats bat aurrera eman.

Tamalez, Aiala, Ibon eta Igarki eraman zituzten eta eurekin batera 20 lagun atxilo eraman gintuzten azkenean gutako 15 auzipetuz desobedientzia, aginteari atentatua edota erresistentzia egitea egotzita. Gainera Ertzaintzak azken urteotako bortizkeriarik nazkagarriena erakutsi zuen, egunean bertan 70 lagun baino gehiagok salaketak jarri genituelarik euren jipoien ondorioz.

Eta babestu genituen lagunak atxilotzera etorri ziren horiek ez ziren berdez jantzitako gizonak izan, ez. Beste behin ere Auzitegi Nazionalean hartutako

erabaki politikoak gauzatzeko berrero diren EAJ-PNVren morroiak etorri ziren, zoru etikoaren inguruko lezioak eman nahi dizkiguten horiek. Erabaki politikoa da milaka euskal herritar atxilotzea, torturatzea, espetxeratzea eta inolako azalpenik gabe gerora askatzea. Erabaki politikoa da ere PNVk Ertzaintza bidaltzea eta Estatu espainiarrari men egitea erabaki politiko bidegabeen aurrean planto egin beharrean. Hori da bakegintza eta elkarbizitza osasuntsuago baten bidean proposatzen duzuen, jabeari amen egin eta obeditzen jarraitzea.

Eta nola ez, gurea ere erabaki politikoa izan zen. Egoera bidegabeen aurrean zuzena denaren alde egitea eta ez obeditzea. Desobeditzea, alegia. Egoera berriz errepikatuko balitz egon ziur berriro egingo genukeela.

Duela urte t'erdi euskal gazteria duintasunaren, borrokaren eta desobedientziaren eredu bilakatu zen beste behin ere eta horren lekuko izan zen gaur biltzen gaituen plaza hau ere.

Esan bezala, 2015eko maiatzaren 17 hartan ez zen ezer amaitu eta zoritxarrez errepresioak ez du etenik. Epaietek eta prozedimendu judicial bidegabeek ez dute etenik. Hala, lehen hitzordua urriaren 10ean izango da eta hurrengoa abenduaren 13an. Zentzu horretan, Gasteizko Harresiak egindako deialdiarekin bat egin eta datorren astelehenean, urriak 10, goizeko 9etan Gasteizko epaitegietan burutuko den kontzentrazioan parte hartzeko deia luzatzen diogu herritar orori.

Bukatzeko zera esan nahi dizuegu gu epaitzeko intentzioa duzuenoi: elkartasuna eta maitasuna epaitu nahi dituzue, baina badakizue zer? Ez zaretela inor gu epaitzeko! Elkartasuna eten, gazteak jipoitu eta egoera bidegabeen aurrean beste alde batera begiratu edo lege injustuak aplikatzen jarraitu nahi duzuenak ez zarete inor gu epaitzeko. Horrela, eremuz eremu desobedientziaren bidean barrena ibiltzen segitzeko asmoa dugu salbuespen egoerak salatu eta gure herria askatuko duen eskenatoki berri baterako baldintzak areagotzeko.

Eta Aialak zioen bezala, gu zuek izan ginelako eta orain zuek gu zaretelako segi dezagun lanean!

Gasteizen, 2016ko urriaren 4an.